

ZEIN? ETA AMA SAY

Nolako enborra, halako ezpalak



Zein?-eko partaideak *Ahari Talka* diskoaren zuzeneko emanaldiak prestatzen ari dira.

Zein? eta Ama Say notizia dira azken boladan, biak ere panorama musikaleria itzuli baitira. Lehenengoek lau urteko isilunearen ondoren *Ahari Talka* diskoa plazaratu dute. Ama Say bestalde, eskenatokitara itzuliko da duela hamalau urte taldea desegin eta gero. Gauza berriak ere prestatzen ari dira, eta ikusteko dago ea itzulera hau puntuala edo luzerako izango ote den...

LANDER MUÑAGORRI

Argazkiak: Iñigo Azkona

HIRU ANAIA DIRA Bilbaotarren etxean, eta hirurak daude musikari lotuta; euren sormenaren fruitu dira Ama Say eta Zein? erreferentziatzko bi taldeak. Hasieran Gontzal (bateria) eta Ibon (ahotsa) Ama Say taldean aritu ziren, eta hura desegin zenean, bere errautsetatik sortutako Zein?-en Kepak hartu zuen abesteko ardura, hemen ere Gontzalen laguntzarekin. Edozein moda eta korronteren gaitetik, AEBetako indie, grunge eta noise-popa izan dituzte oinarri. Bi taldeetan era ezberdinean, baina sustraiak hor dituzte.

Zein?-ek orain lau urte argitaratu zuen *Photograma* bigarren diskoa; agertokietan aurkeztu aritu ondoren, lan berrirako kantuak sortzen hasi ziren. Estudioan sei hilabete luze egin zituzten grabatzeko, eta “azkenean geure puntua lortu dugula” uste du Kepak. Hainbeste denbora estudioan emateak lasaitasuna eman die eta abestiak taxutzeko garaian nabaritu egiten da. “Prozesu luze baina emankorra izan da; abesti bakoitzaren hainbat proba egin ditugu eta azkenerako nahi genuena lortu dugu”. Lan berriak orain arteko diskoen ildo jarraitu du: rock gordin eta melodikoa, sentimenduz betetako hitzez hornitua.

Noizpop argitaletxearen bitartez argitaratu dute, Metak-en itxieraren ondoren. Disko berria esku artean zeukatela, berarekin zer

egin jakin gabe egon ziren. Abestiak jaitsi ahal izateko webgune potente bat egitea pentsatu bazuten ere, azkenean “argitaratzea erabaki genuen, erromantiko xamarrik baikara, eta betiere esku artean disko bat edukitzea gustatu egiten zaigu”.

Ama Say-ren errautsetatik...

90eko hamarkada hasieran eman zituen Ama Say-k lehen urratsak. Bilbaotarren etxeko garajearen hasi ziren entseatzen, Kepa anaia gazteena beti ondoan zeukatela. Pixies, Sonic Youth edo Charlatans taldeen ildoan, rock gogorra egiten zuten. Ibon Bartzelonara ikastera joateak ere ez zituen geldiarazi; kasik astebururo egiten zituen Euskal Herria eta Herrialde Katalunen arteko joan-etorriak kontzertuak eskaintzeko helburu bakarrarekin. Erritmo horretan bi disko eta kontzertu ugari eskaini zituzten Euskal Herriko hainbat txokotan, baita Herrialde Katalanetan, Espainian eta Frantzian ere. Azkenerako zirt edo zart egin behar horretan, taldea utzi eta Bartzelonan bizitzen jarraitzea erabaki zuen Ibonnek, horrela Ama Say-ren ibilbide motz bezain emankorrari amaiera emanaz.

Orain, Ibon Euskal Herrira itzuli da, Bizkaia inguruan laneko proiektu garrantzitsua dauka eta. Beste hainbat gauzen artean taldea

berreskuratzea izan da eman duen lehenengo urratsa. Keparen hitzetan, “Ama Say-koak orain egiten ari diren abestiak nahikoa ezberdinak dira, ez dira lehen egiten zituztenen tankerakoak. Hamalau bat urte igaro dira taldea utzi zutenetik, eta denbora horretan gustuak aldatu egiten dira”. Baina era batera edo bestera itzuli egingo dira, eta “jende askok uste duena baino lehenago gainera”.

... Zein?-en sorrerara

Gontzal eta Karlosek (baxua) musikaz gozatzeko jarraitu nahi zuten, eta Kepari eskaini zioten proiektu berri baten barruan abeslari izateko aukera. Zein? izango zen talde berri horren izena, eta aurrekoaren jarraipena baino gehiago, garapena izan zela uste du Kepak: “Ama Say-k jotzen jarraitu izan balu posible da guk egiten dugunaren antzeko zerbait egitea; azken finean beraien lehenengo diskoaren eta bigarrenaren artean aldaketa dago, hirugarrenean Zein?-en antzeko zerbait egin zezaketen. Ez dut ezetz esango, hirurok musika berdina entzun izanak garapen antzekoa lortzea ahalbidetuko baitzuen”.

Musikalki antzekotasun nabarmenagirik ez badago ere, topa liteke bi taldeen artean bestelako parekotasunik; abesteko garaian, Kepa eta Ibonek hainbatetan oso era antzekoan egiten baitute. Nortasun handia daukate kantatzeko unean, “beti musika berdina entzun dugu hiru anaiok, eta horrek guztiak abesteko garaian zerikusi zuzena dauka. Betiere bakoitzak bere ukitu pertsonala eman nahi izaten dio egiten duenari, baina erreferentzia berdina izateak puntu komun batzuk izatea bideratzen du. Anaiak gara eta genetikak ere zerikusia izan behar du”.

Aitzindaritzak

Beste aspektu batean ere izan dira bi taldeok ‘ezberdinak’ edo aitzindariak: Ezkerraldekoak izaki, ez da gauza arrunta biek ere euskaraz kantatzea. “Garai batean izan ziren Zarama-



Kepa: “Musika niretzat droga da, bizitzeko modu bat”.

koak, eta gaur egun Split 77-koak, baina azken horiek Bilbokoak dira”. Euskal Herriko inguru honetan euskaraz abesten duten talde bakarrenerakoak dira Zein? eta Ama Say. “Egia esateko ez genuen planteatu ere egin: era naturalean ateratzen zitzaigun euskaraz kantatzea, nahiz eta Ama Say-k ingelesez ere egiten zuen”, dio Kepak. “Eurak gainera beti esaten zuten gauza bera: Pixies-ek ingelesez eta gaztelaniaz egiten badu, guk zergatik ez dugu euskaraz eta ingelesez egingo ba? Nahasketa horrek azkenean nahiko puntu berezia ematen zion taldeari. Bigarren diskoan halere ingelesaren erabilera gutxitu egin zen... eta orain batek daki zer egingo duten!”.

Zein?-eko mutilak dagoeneko hasiak dira disko berriaren zuzeneko aurkezpen emankizunak eskaintzen. Udara lasaia datorkie, gaur egun talde txikiak jotzeko zailago baitaude. “Udaletxeek diru kopuru bat dute, eta nahia dute, bost edo sei talde baino, indartsu bat ekarri”. Egungo egoeran kontzertuetatik lortzen da etekin gehien, eta ondorioz “lehen guk jo genezakeen tokiak kendu dizkigute talde handiek”. Kontzertu gutxiago izango direnez, arrazoi gehiago euren zuzeneko batera inguratzeke. ■

MURGIL ZAITEZTE BURDIN HARANEAN!



Bertan ikusgai:

- Euskal Burdinaren museoa
- Mirandaolako burdinola
- Artzantzaaren ekomuseoa
- Ogiaren txokoa
- 50. urteetara bidaia, langileen ibilbidea
- Burdinolen taupadak ibilbidea

Urola garaia eskualdeko turismo bulegoa



Mirandaola Parkea (Legazpi)
Tel.: 943 73 04 28
www.lenbur.com
e.posta: mirandaola@lenbur.com